



A m o r o t o k o U d a l a

Elxalde Auzoa, 1
48289 Amoroto (Bizkaia)
Tel: 946842549 - Fax: 946243704
E-mail: mblaka.amoroto@bizkaia.org
Web: www.amoroto.net

Akta: 01/04

2004KO URTARRILAREN 14AN EGINDAKO BATZARRA

Amoroton, udaletxeko batzar aretoan, bi mila eta lauko urtarrilaren hamalauan, gaueko zortzietan, behean aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira, Maribi Ugarteburu Markuerkiaga alkate andrea buru dela.

Bertaratuak:

Zinegotziak: Bitor Mari Gabiola Leniz
Igor Gabiola Antxustegi
Idazkaria: César Gandarias Badiola

Bertaratu ez direnak:

Ramon Abaroa Iturraran
Sorkunde Gabiola Zabala
Ainara Ikaran Zugazaga
Pedro Mari Arriaga Meabebasterretxea

Alkate-udalburu andreak batzarrari hasiera eman ondoren, aurreko batzarreko akta irakurri eta aho batez onetsi da.

Jarraian, ondorengo erabakiak hartu dira:

1.- OLETA EREMUAN IRISGARRITASUN LANAK AURRERA ERAMATEKO ESKAERA HERRILAN ETA GARRAIO SAILARI.-

Alkate andreak azaldu du Bizkaiko Foru Aldundiko Herrilan eta Garraio Saileko Buruarekin izandako batzarrean, honek Oleta eremuko irisgarritasun lanak aurrera eramateko konpromesua eman zuela. ADIR enpresak egin berria duen Amorotoko Udalerako irisgarritasun planaren barruan azaltzen dira zeintzuk lan egin behar diren aipatutako Oleta eremuan.

Azaldutakoa kontutan izanda eta gaia aztertu ondoren, Udalbatza Osoak aho batez erabaki du:

- 1) Amorotoko Irisgarritasun Planaren barruan, Oleta eremuko lanak aurrera eramateko eskaera egitea Bizkaiko Foru Aldundiko Herrilan eta Garraio Sailari.
- 2) Horretarako, eta eskaerarekin batera, ADIR enpresak aipatutako eremurako egindako planaren kopia bat bidaltzea Herrilan eta Garraio Sailari.

2.- BIDEEN EGOKITZEA AMOROTON, 2004KO KANPAINA, PROIEKTUKO OBREN EXEKUZIORAKO DIRULAGUNTZA ESKATZEA BIZKAIKO FORU ALDUNDIARI.-

2004rako Landabideen Laguntza Planaren egitarapena arautzen duten Bizkaiko Foru Aldundiaren 58/2002 Foru Dekretuaren eta 6583/2003 Foru Aginduaren berri eman ondoren eta Sabas Bedialauneta Ingeniari jaunak idatzitako proiektua ikusirik, Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) Sabas Bedialauneta Ingeniariak idatzitako "Kostatzako bidearen egokitze proiektua Amoroton. 2004ko kanpaina" onartzea. Egitasmoaren aurrekontua 31.185,01 eurotakoa da.

2) Dirulaguntza eskatzea Bizkaiko Foru Aldundiari, 2004rako Landabideen Laguntza Planaren karguz, "Kostatzako bidearen egokitze proiektua Amoroton. 2004ko kanpaina" egitasmoko obren exekuziorako, bere aurrekontua 31.185,01 eurotakoa delarik.

Dirulaguntza lortuz gero, inbertsioan finantzakide izateko eta eginda gero landabidearen zaingoaz arduratzeko eta konpontzeko konpromisoa beregan hartzen du Amorotoko Udalak.

3.- HORNIKUNTZA ETA SANEAMENDURAKO TOKI PLANAREN BARRUAN OBREN EXEKUZIORAKO DIRULAGUNTZA ESKATzea BIZKAIKO FORU ALDUNDIARI.-

2004rako Hornikuntza eta Saneamendurako Toki Planaren barruan, Azpiegitura Hidraulikoen finantzaketa arautzen duen 277/2003 Foru Dekretuaren berri eman da.

Ikusirik Bidein, S.L. Ingeniaritzak egindako proiektua Amoroto Udaleko Hiri Gunean zerbitzuak berregiteko eta ezartzeko.

Ikusirik proiektu horren aurrekontua 425.302,69 eurotakoa dela, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Dirulaguntza eskatzea Bizkaiko Foru Aldundiari, 2004rako Hornikuntza eta Saneamendurako Toki Planaren karguz, Hiri Gunean zerbitzuak berregiteko eta ezartzeko obren exekuziorako Bidein, S.L. Ingeniaritzak egindako proiektu eta aurrekontuaren arabera.

Dirulaguntza lortuz gero, inbertsioan finantzakide izateko konpromisoa beregan hartzen du Amorotoko Udalak.

4.- ADIR ERAKUNDEAK EGINDAKO AMOROTOKO IRISGARRITASUN PLANA.-

ADIR erakundeak aurkeztutako dokumentua aztertu da. Bertan Amoroto udalerrirako irisgarritasun plana jasotzen da. Azterketa egin ondoren eta Udal arkitektuaren iritzia kontutan izanda, Udalbatzak aho batez erabaki du:

ADIR erakundeak egindako Amorotoko irisgarritasun planari bere adoztasuna ematea.

5.- 2004RAKO UDAL LANGILEEN SOLDATAK.-

Idazkariak azaldu du Lea Ibarreko Amankomunazgoak onartu duela IPCak izan duenaren antzeko langileen soldaten igoera 2004rako.

Honen aurrean, Udalbatzak aho batez erabaki du:

2004 urterako Amorotoko udal langileen ordainsariei IPCak izan duenaren antzeko igoera ezartzea onartzea.

6.- DIRULAGUNTZA ESKAERAK.-

Aurkeztutako dirulaguntza eskaerak azterturik, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Ondoren aipatzen diren dirulaguntzak ematea:

- Hitza egunkariari, herriko biztanle bakoitzeko 4 euro, denetara: 1.480,00 €.
- Ibilaldiarentzat, 150,00 €.
- "Ayudale a caminar" Elkarteari, 150,00 €.
- "Medicos del mundo" Elkarteari, 150,00 €.
- Iranen egondako lurrikaragaitik kaltetuak izan direnentzat, 300,00 €.

7.- GASTUAK.-

Ondorengo gastu eta fakturak aurkeztu dira, behar bada onartzeko:

- Hitzaren faktura, 134,56 €.
- Fontaneria Letraukuaren faktura, 76,85 €.
- Canonen faktura, 30,50 €.
- Bizkaia Irratiaren faktura, 244,76 €.
- Ostoa, S.A.ren faktura, 219,30 €.
- Bizgorre, S.L.ren faktura, 9.860,00 €.
- Iragarri, S.L.ren faktura, 236,64 €.

Udalbatzak aurkeztutako gastuak onartzea eta ordaintzea erabaki du.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburu andreak bilera amaitutzat eman du gaueko hamarrak eta laurdenak direnean eta nik, Idazkariak, erabakitakoak jasotzeko akta hau egin dut.